


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Trauma, mamu, ilunpeetan barrena



Saioa Ruiz



Ilunpeen bihotzean JOSEPH CONRAD

Itzultzailea: Iñaki Ibañez
Elkar, 2014

Ilunpeen bihotzean (*Heart of Darkness*), institutuan, ez dakit zein ikasgairako derri-gorrezko irakurketa zen. Hamasei urteko gazteentzako gehiegizkoa ene usterako. Oraindik gogoratzen dut nola irakasleak esaten zigun Joseph Conrad literaturako klasiko bat zela, horrek liburua erakargarriago egingo balu bezala. Garai hartan nik ez nekien zeri deitzen zitzaion klasiko bat, baina berehala konturatu nintzen hitzak pisu berezia ematen ziola liburuari. Bi, hiru irakurketen ostean ezer ere ulertu gabe jarraitzen nuen eta horrek izugarrizko presioa eragin zidan. Klasiko bat ez ulertzearen kulpabilizazioa gogoratzen dut, beranduago idazlearekiko gorrotoa bilakatu zena.

Pasadizo traumatiko horri esker gazteei literatura planteatzeko moduaz asko ikasi nuen, baina idazlearekiko errefusa ez dut oraindik gainditu. Hemen naiz aspaldiko partez traumari aurre egin nahian.

Logikoki kontaktua bestelakoa izan da oraingoan. Esperientzia bitalak eragin ukaezina du asimilazioan, ulermenean eta, batez ere, gustu kontuetan. Beste hitzetan esateko, klasikoan irakurketek ez dute zertan derri-gorrezkoak izan behar, eta askoz gutxiago ere nahi eta nahi ez gustagarriak. Horregatik, kontuz ibili behar dugu kontzeptu teorioegien erabilerarekin, bereziki gazteen aurrean. Niri dagokidanez, bai, esan dezaket trauma gainditu dudala, iritzi teorikoei beldurra galtzeari esker.

Gauzak horrela, esan gabe doa *Ilunpeen bihotzean* irakurri dudanez Conrad-en liburu

bakarra dela. Denok daukagu argumentuaren nola edo halako ideia bat, eleberrian oinarri sendoa duen Coppolaren *Apocalypse Now* filmari esker. XIX. mende amaieran kokatzen gaitu, Marlowk dioten bezala, "lurra-ren konkista" garaia. Marlowk gidatutako belaontzi europarra Afrikan barneratzen da gaixorik dagoen Kurtz izeneko boli-komertziala ordezkatzeko. Kolonizazio okzidentaltaren gehiegikeria eszenatoki hartuta, oro har, ilunpeetan jatorria duen gizakia eta zibilizazioaren arteko talkaz mintzo da. Oihanean barneratzea norbere mamuetan zehar bidaiatzea bezala da, *descensus ad inferos* deitu izan zaion motibo klasikoa, alderdi ilunenak ezagutzea alegia. Liburuaren konplikazioa psikologikoezia izatean datza hain zuzen ere; kontzientziaren leku ezkutuenetan (inkontzientea deitua ere) miazteak eragiten duen ezinegona, estualdia eta, zenbaitetan, ingurukoarekiko haustura. Horregatik pentsatzen dut publiko adindun batentzako irakurketa aproposa dela, baina ez derrigorrezkoa. Norberak erabakitzen baitu bere ilunpeen bihotzean arakatzea. ■

